

253. ZENBAKIA-AZPEITIKO HERRI ALDIZKARIA-2022KO URRIA

UZTARRIA

ZENBAKI HONEKIN BATERA
+ GUKA ALDIZKARIA

MIRARI URIA

AMETSEN ZELAIAN




INNOVA
AZPEITIA
HORTZ KLINIKA



BEHAR DUZUN HORI
EMAITZA ONENAREKIN

Jose Artetxe 5
📞 943-02 59 55

MILAR LARRAMENDI

Etxetresna elektrikoak


Cooking
& Chef



WWW.MILAR.ES

WEBGUNEAN ERE EROS DITZAKEZU ETXETRESNAK.
MILAR LARRAMENDI, BETIKO KONFIANTZAREKIN ETA HURBILTASUNAREKIN,
ARDURATUKO DA EROSITAKOAZ ZURE ETXERA ERAMATEAZ ETA JARTZEAZ.

Julio Urkixa, 16 • AZKOITIA • 943-85 18 97 • www.milar.es



KIMUBAT
— GARDEN

Santu Guztien Eguna

Aurten Kimubaten soilik egingo
ditugu eskaerak, zentroen prestaketak,
lore-sortak eta abar.

EGIN ZURE ENKARGUA:

943 15 00 85 • garden@kimubat.eus





UZTARRIA

253

2022-URRIA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ARNAITZ RUBIO APREA

Aurkibidea

- 5 **Iritzia** Ihintza Elustondo,
Gauzen ordena.
- 6 **Hantxe bertan** Bartzelonan bizi
den Nerea Arregi.
- 8 **Nire leihotik** Alaitz Ruiz, *Lurra.*
- 10 **Iritziak** Luis Gurrutxaga, *Kizkitza;*
Txetxu Urbietta, Txurroak.
- 12 **Elkarrizketa** Ekaitz Garmendia
musikaria.
- 18 **Elkarrizketa** Mirari Uriá futbolaria.
- 25 **Lehiaketa**
- 26 **Erretratua** Maider Gurrutxaga
'pole dance' dantzaria.
- 30 **Plazan bazan**
- 33 **Iritzia** Imanol Amiano,
Txakurra akatuta, amorrurik ez.
- 34 **Bestaldetik** Jose Luis Otamendi
idazlea.
- 38 **Iritzia** Ione Gurrutxaga,
Urrutiko intxaurrak.
- 40 **Iritzi grafikoa** Itziar Aranguren.
- 42 **Klik!** Itsaso Aramendi eta Oier
Iriondo, familiarekin bizikletaz
bidaiatzen.
- 46 **Iritziak** Miel A. Elustondo,
Hildakoa hil; Sara Amenabar,
Desberdintasunean berdin.

UZTARRIA

Argitaratzailea
Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Eik.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-15 03 58
uztarria@uztarria.eus
www.uztarria.eus

Zuzendaria:
Julene Frantzesena
Erredaktoreburua:
Ihintza Elustondo
Erredaktore taldea:
Mailo Oiarzabal
Julene Frantzesena
Maialen Etxaniz

Ihintza Elustondo
Diseinu arduraduna
Iñaki Martínez Albizu
Publizitate arduraduna
Angel Sarasua
**Zenbaki honetako
kolaboratzaileak:**
Alaitz Ruiz

Luis Gurrutxaga
Txebu Urbietta
Itziar Aranguren
Olatz Alkorta
Imanol Amiano
Ione Gurrutxaga
Miel A. Elustondo
Sara Amenabar
Nagore Aizbitarte

Arnaitz Rubio Aprea
Inprimategia
Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-860/2000
ISSN: 1576-7337
Tirada: 2.500 ale

TOKIKOM



Gipuzkoako Foru Aldundia



uztarria

AZPEITIKO KOMUNIKAZIO TALDEA

PUBLIZITATEA



ostadar optika
OPTOKIAK - OPTOMETRISTAK

Jose de Artetxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA

Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA

EGUZKI
belardenda
dietetika
kosmetika naturala



Kale Nagusia, 67 943-60 34 47 **AZKOITIA**
Urbitorre 9 bis 943-15 00 23 **AZPEITIA**

IRENE ALTUNA
JOKAIDENA

Loiola-Bide, 26 Tel. 943-81 51 87
www.ikurmadenda.com



**ERLOJU
KONPONKETAK**

Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12



Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA

Tifinoa: 943 81 56 08
Faxa: 943 15 03 62



Abakuntzaritza
-
Itxura
-
Jasotzea
-
Bontatzea

Gestio lanak
Finan administrazioa
Gestio inmobiliarioa

Tel: 943 787 329 Fax: 943 787 373
Beparrak: Saltea, 45-4. Ibilbidea, 20000 Azpeitia



Ekain
ALBAITARI KLINIKA

Euskal Herria Kalea, 34
20730 **AZPEITIA**
Tel.: 943-15 16 40
Larrialdiak: **688 69 29 51**



**JARRI HEMEN
ZURE IRAGARKIA!**



**Aiertza
Autoak**
Behar duzun konfiantzazko talerari!

Marka guztietako
ibilgailuen konponketak

943-81 19 15
AZPEITIA
aiertza@aiertzaautoak.com



EUROTALLER MULTIMARKA ZEBERTZUA



**AIATE ETA
DISENU
ESKOLA
ELKARTEA**

Marrazkia eta eskulanak
(haurrak) 17:30 - 19:00

Pintura 16:00 - 17:30
(helduak) 19:00 - 20:30

Talla 18:30 - 20:00

Jose Artetxe kalea, 3
943 81 29 08
www.diesina@gmail.com
Matxukua urte osan zabalik

IKA
argi lanak s.l.

Instalakuntza Elektrikoak

Urteko: 618 96 49 95 / Jan: 649 12 02 71
ikazargi@argiika.com www.ikasistemak.com
20730 **AZPEITIA**

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"

**URBISTONDO
MARGOAK**

Salbe Auzunea, 35 behea 20730 **AZPEITIA** - Urrut.: 943 81 57 81

Gauzen ordena



IHINTZA ELUSTONDO

Etxean sartu zara, eta dena hankaz gora topatu duzu. Zeure buruari galdetu diozu noiztik ez duzun komuna garbitu, noiztik ez duzun xurgagailua pasatu.

Noiztik ez duzun babesleku behar lukeen nahaste-borraste horretan erreparatu.

Lurrikara batek astindu bazintu bezala, mahukak gora igo eta hara eta hona hasi zara, tiraderak astintzen, herdoildutako hautsak kentzen, kristaletatik zarakar bilakatu diren hatz markak ezabatzen.

Norenak diren oroitzen ez zaren arrasto horiek.

Zaborrontzia zabaldu eta kutxa horia gainezka aurkitu duzu; plastiko bete itsaso arrainak lepotik estutzen irudikatu duzu.

Idor bilakatu den landareari ura bota diozu, eta ihartze etengabe hori berotze globalak eragin ote duen pentsatu duzu.

"Pertsonarik gabe bai, baina zuhaitzik gabe ez dago etorkizunik", esan zizutela oroitu duzu.

Hozkailuan alferrik galtzen ari den janaria topatu duzu, eta mundu erdia gosez imajinatu duzu.

Irratia piztu duzu.

Belarri ertzean deiar dar egin dizu, eta entzun nahi ez dituzun gauza guztiak batera jaurti dizkizu.

Argia aurrezteko, itzali egin duzu.

Ohea egin gabe dagoela ikusi duzu. Hantxe barruan sartzeko gogoa piztu zaizu.

Orduantxe, inoiz ez aurkitzeko esperantzan gorde zenuen argazki hori gau mahaitik behera erori zaizu.

Oroitu nahi ez dituzun gauzak burura datozkizu, gogoratu nahi dituzunak ahazten zaizkizu.

Ondoan nahi dituzunak falta dituzu, soberan daudenekin zerrenda osa dezakezu.

Hortzetako pastaren hondarrak dituen ispiluak zeure irudia distortsionatu dizu.

Garbigailua jarri, eta hantxe biraka dabilen esku trapua dirudizula pentsatu duzu.

Etxean aurrera eta atzera, Sañoan jarri nahi dituzten errota horietakoa dirudizu.

Eta jada ez dakizu etxea, mundua ala zeure burua den ordenatu nahi duzuna. ■■■

**HORTZETAKO
PASTAREN HONDARRAK
DITUEN ISPILUAK
ZEURE IRUDIA
DISTORTSIONATU DIZU**

Nerea Arregi: "Pertsonak egiten dituzte lekuak"

TESTUA: **IHINTZA ELUSTONDO** ARGAZKIA: **UTZITAKOIA**

Azpeititik Alemaniara, handik Herbehereetara, eta gero, Bartzelonara. Egun, Katalunian bizi da Nerea Arregi (Azpeitia, 1977). "Gustura" dago han, baina ez du betirako han gelditzeko asmorik.

Noiz alde egin zenuen sorterritik?

21-22 urte nituela. Alemaniara joan nintzen lehenik, kantugintzako ikasketak egitera; nire asmoa operan-eta abestea zen. Dena den, urtebetera edo bi urtera laga egin nituen ikasketa horiek. Ondoren, beste ikasketa batzuk egin nituen Alemanian bertan, eta lanean ere aritu nintzen han. Denboraldi bat Herbehereetan ere egin nuen, eta gerora, Bartzelonan lan egiteko aukera sortu zitzaidan; horregatik etorri nintzen Bartzelonara. Gaur egun, Seat autoen enpresan lan egiten dut, nazioarteko salmenten arloan.

Non bizi zara, zehazki?

2005. urtearen bukaera aldera iritsi nintzen Bartzelonara, eta ordutik, probintzia horretako leku ezberdinetan bizi izan naiz. Lehenik, Bartzelona hirian bizi izan nintzen. Han egun nire senarra dena ezagutu nuen, eta orain, Igualadan bizi gara. Bartzelona probintziako herri handi bat da Igualada. Hamahiru urte daramatzagu bertan.

Gaur egun ez al duzu abesten?

Etxean bai, baina bestela ez.

Zergatik utzi zenuen bide hori?

Oraindik ez daukat horrentzat erantzun garbirik. Alemaniara joatean gaixotu egin nintzen, eta Azpeitira bueltatu behar izan nuen denboraldi baterako. Ez ziren garai errazak izan niretzat. Gainera, kantagintzarena oso arlo bakartia da, eta ez ninduen gehiegi konbentzitu. Bizitzako etapak mundu hura albo batera uztera eraman ninduen.

Bartzelonan bizitzen jarraitzeko asmoa al duzu?

Oraindik bai, baina gerora, ez dut uste. Bizitza etapak dira, eta denbora pixka bat gehiago emango dut Bartzelonan, baina uste dut oraindik beste leku batzuetan biziko naizela. Ez daukat intentziorik bizi guztirako hemen gelditzeko, eta gainera, nire asmoa Azpeitian hiltzea da.

Ez al zaitu betetzen horko bizimoduak?

Etzera bueltatzea nahi dut, eta niretzako hau ez da etxea. Bizi izandako leku guztietan gustura egon

naiz, eta hemen ere hala nago, baina nire etxea Azpeitia da, Euskal Herria.

Zeren falta sumatzen duzu?

Horko bizimoduarena, kale giroarena... Askoz naturalagoa, alaiagoa, da horko jendea. Azpeitian gauza zoragarriak daude; familia, lagunak, kalera irten eta jendea agurtzen duzu... Hori opari bat da; Bartzelonan ez dago gertutasun hori. Hemen izaeraz itxiagoak dira; euskaldunak itxiak garela esaten dute, baina katalanak are gehiago. Eta nire lagun-lagunak katalan-katalanak dira e, baina oso ezberdina da hemengo bizimodua.

Gustura etorriko zinateke pintxo-pote batera, ezta?

Noski baietz. Bartzelonan ez dakite zer den hori [barreak]. Ez dakizue zer daukazuen Euskal Herrian, benetan. Nire urterik politenak munduan zehar pasatu ditut, eta hori dena zoragarria da, baina gero, urteak pasatzen ari diren moduan...

Zer gustatzen zaizu gehien Bartzelonatik? Eta zer gutxien?

Gehien aniztasuna. Gutxien gustatzen zaidana, berriz, anonimotasuna da: hainbeste jende kalean, baina aldi berean, bakarrik zaude.

Munduko txoko asko ezagutzeko aukera izan duzu. Zer ikasi duzu urteotan?

Tolerantzia maila asko handitu zait, eta malgua izaten ikasi dut. Guk sinesmen batzuk izan arren, beste leku batzuetako jendeak beste batzuk dituela ohartzan zara, eta horrek ez epaitzen, ulertzen, begiak irekitzen... laguntzen du. Gainera, neure burua ezagutu dut kanpoan ibilita.

Ba al dago Euskal Herria baino leku hoberik bizitzeko?

Munduko edozein lekuk balio du bizitzeko, gertuko jendea zurekin baldin badago. Berdin du Euskal Herria edo Txina izan.

Lekuak baino, pertsonak dira garrantzitsuak, beraz?

Pertsonak egiten dituzte lekuak. Kanpoan bizita, gertuko jendearen falta sumatzen dut: ahizparena, amarena, kuadrillakoena...

Laster Azpeitira lekualdatuko zarela dirudi...

Oraindik ez daukat hiltzeko gogorik [barreak].

100 urte dituzunean edo, agian?

Bai, ez da adin txarra hiltzeko. Beraz, agian, 98 urte ditudanean-edo joango naiz Azpeitira [barreak]. ■■■



Lurra



ARGAZKIA ETA TESTUA: **ALAITZ RUIZ**

Lau omen dira elementuak, eta elementu horiek guztiak omen gara gu ere. Ura gara, lurra gara, haizea, baita sua ere. Lau horiei bosgarren bat gehitzen diegu batzuek: bihotza.

Gehiago edo gutxiago, denek dute tokia gure barrenean, baita zeresana ere.

Lurra, adibidez, egonkortasuna da. Gure erlazio, ideia eta proiektuetan tinko mantentzen laguntzen diguna. Arrazionala. Indartsua. Segurtasuna ematen diguna.

Aldi berean, gure sustraiekin konektatzen gaitu, gorputz fisikoarekin, eta nola ez, naturarekin. Amalur emankorra. Orain eta hemen.

Eta zu? Elementu horrekin identifikatzen al zara? ■■■■







LUIS GURRUTXAGA

Kizkitza

Zomorro madarikatuaren pean bi urtez egon ondoren, Kizkitzako erromeriara –irailaren 8an– joateko aukera izan dugu aurten. Garai batean jendea trumilka hurbildu ohi zen Mandubiko mendatetik gertu dagoen ermitara, bi isurialdeko erromesak, Goierri zein Urola aldekoak. Beizamatik, Errezildik edo Martirietatik bailarara jaitsi gabe, mendiz inguratzen ziren baselizara. Askok astoa garraio moduan erabiltzen zuten. Asto saski batean eguneko janaria eta abarrak; bestean, umeren bat oreka gordetzeko. Aratzerrekako emakume batek kontatua: "Gu irrikitan egoten ginen, Zumarragako Santa Isabel egunean erromeriara joateko, eta nola ez, Kizkitzara. Baina attek baldintzak jartzen zizkigun: Santa Isabelera joateko artoak jorratuta

egon behar, eta Kizkitzarako, berriz, garaiko belar lanak bukatuta. Bestela... etxean gelditu behar. Hura poza eguna iristeko!". Kontu bitxi bat: Ibaiederko auzotarrentzat urteko egun kutunetakoa izan ohi zen, eta kaleko azpeitiarrek, oro har, ez dute eduki Kizkitzako egunarekiko inolako zaletasunik. Hori da izan dudana pertzepzioa.

Zer dakigu Kizkitzako historiaz? Dirudienez, 1622 inguruan eraiki zuten ermita. Normala denez, gertaera eta istorio ugari nozitu ditu hainbat urtetan. Adibidez, 1818an Ezkioko Arantzadi erretoreak, Iruñeko gotzainak eskatuta, txostena idatzi zuen Kizkitzako egunari buruz. Bertan, besteak beste, egun horretan dantza lizunak, borrokak eta liskar ugari egon ohi zirela salatzen zuen. Hori irakurrita, 1820an ermita eraisteko agindu zuen

Gotzaindegiak, eta Ama Birjinaren irudia Itsasoko parrokiara jaisteko. Kontua da, irudia Kizkitza inguruan topatu zutela berehala, bazter batean. Gertaera mirakulutzat hartu zuten herritarrek. Handik 30 urtera jakin zen egia: inguruko bi gaztek, ados ez erabakiarekin edo, eta 'bahitu' egin zutela irudia ermitara itzultzeko asmoz, baina gauaren iluntasunak edo auskalo zerk eraginda, beldurrak jota utzi zutela imajina txoko batean.

1959ko abenduaren 28an, hau da, Inozente egunean, tximistaren eraginez, suak suntsitu zuen. Arriarango Joxe Martin kamiolariak, postari eta errekadistak, zabaldu zuen albistea bailara osora, baina... Jendeak entzungor egin zuen Inozente eguna zelako eta postaria bera nahiko txantxazalea zelako. Auzotarren laguntzaz,

HAUXE BAI JENEROA!



HAN ETA HEMEN



TXETXU URBIETA

Txurroak

Ez dira ez inoizko garairik onenak. Udazkenean sartzearekin bat, bizitzaren negu beltza gainera datorkigula dirudi. Dena da iluna, dena da tristea. Macron lagunak esan duenez, oparotasunarenak egin du. Akabo. Kolpetik dena aldatu zaigu. Nahi izatea ez da aski ahal izateko; zerbait lortzeko aurrez hori amestea ameskeria hutsa da; osasuna ez da indarra, osasuna gaitz gabezia da; ez gara guzti ahaldunak, hauskorak gara, ahulak gara; egin negar lasai, malkoa modan jarri da. Beldurra hezurretaraino sartu digute.

Txiro izan eta aberatsen bizimodua egiten genuela ere entzun genuen; orain bat-batean txirotu gaituzte. Erosketak egiterakoan bi aldiz pentsatu behar zer erosi. Gaur garesti dagoena bihar garestiago egongo da. Ez naiz angulez ari. Patata, arrautza, sagar, ogi eta halakoez ari naiz. Eta jendea lo egiteko pilulak hartu eta hartu. Hau dek hau mixeriye, Txetxu. Berrito ere, aidanean, belar motxera bueltatu behar, kamarada. Gure gurasoen eta aitona-amonon garaietara itzuli behar. Garai gogorretan, oso gogorretan, beraiek zoriontsu izan baziren, zergatik ez gara ba gu ere zoriontsu izango garai hauetan? Egoera berrira moldatu behar. Gauzei benetako balioa eman behar. Norbanakoa ahaztu eta familiaren indarra lehenetsi behar. Loiolatik pasiera egin, eta, noizean behin, txokolatea txurroekin. Haiek bai garaiak haiek... ■

berreraiki egin zuten baseliza, eta ermitaren ondoan egun dagoen itsasargia kokatu zuten. Antza denez, Tarifatik ekarri zuten ontzioletako hainbat jabek, hain zuzen, duela 60 urte.

Asteburuetan urrun samarretik ere suma daitezke jaurtitzen dituen argi distirak. Baina itsasotik hain aldendua egonik, nondik datorkio Kizkitzari 'itsasotasuna' edo marinel kutsua? Zeren, itsasargia ez ezik, Ama Birjinaren imajina txalupan dago ezarria. Nonbait baso ugari zen ermitaren inguruan, eta ontziolako gizonak eta arrantzaleak ohiko bihurtu ziren parajera. Itsasontzi edo txalupak egiteko zura estimatua zuten. Ama Birjinarekiko debozioa, antza denez, zeharo hedatu zen itsasgizon haien artean.

Duela hamarkada batzuk, imajinarekiko debozioa ikaragarria zenean, jabe askok

oilanda pareak eramaten zituzten Ama Birjinari eskaintzeko. Oilategietan gaitzik ez zedin hedatu eta urtea oparoa izan zedin erregutzen zitzaion Birjinari. Txoko batean gelditzen ziren animaliak, eta zenbait gazte alproja ederki baliatzen ziren: oilandak lapurtu eta negozioa egiten zuten, tabernariei salduz. Nerabatasuna igaro berriak ginenok ilunabarra noiz iritsiko zain egon ohi ginen. Mandubiko Bentan soinu jotzaileak alegratzen zuen arratsa, eta gu zain-zain dantza lotua noiz hasi eta zortea bagenuen gustuko neskatala topatzeko. Ilunak, ordea, bazekarren tristura eta nostalgia apurra ere. Egun hark markatzen zuen, nolabait esateko, uda bukaera, eta hainbat baserri eta auzotakoak elkar agurtzen ziren, "hurrengo urtera arte" esanez. ■



"Unerik onenean nagoela uste dut; oreka hau perfektua da"

EKAITZ GARMENDIA MUSIKARIA

Legen Beltza musika taldean hasi zuen Ekaitz Garmendiak musika ibilbidea, 1998. urtean. Egun, bere musika estudioarekin eta Sijjin izeneko musika taldearekin dabil buru-belarri.

Testua: **Nagore Aizbitarte**. Argazkiak: **Nagore Aizbitarte eta utzitakoak**.

Ekaitz Garmendiak (Azpeitia, 1978) 9 urte zituela izan zuen lehenengo kontaktua gitarra elektriko batekin, eta guztiz maiteminduzen musika tresna horrekin. Geroago, nerabezaroan, ezagutu zuen death metala, eta musika genero horrek ere txundituta utzi zuen azpeitiarra. Musikaren munduan interes eta gustu antzekoak zituzten lagunak topatzen hasi zen laster. Legen Beltza musika taldeko kideak izango zirenekin hasi zen elkartzen, eta taldeko gitarrista izaten amaitu zuen. Legen Beltzak bere ibilbidea bukatu zuenean, Garmendiak argi zuen musikaren bidearekin jarraitu nahi zuela, eta beste zenbait taldetan ibili zen: Jon & Sugramas, Clockwork, Extinction... Egun, Karrantzan (Bizkaia) bizi da, eta ingeniari elektronikoa gisa lan egiten du. Bestalde, Karrantzan bertan duen musika estudioarekin buru-belarri dabil, bai eta partaide den musika talde berriarekin ere: Sijjin. **Noiz jakin zenuen gitarra jotzen hasi nahi zenuela?** 9 urte inguru nituen. Ikastolako irakasle batek etxera gonbidatu gintuen bere urtebetetzea ospatzeko. Irakaslearen senarrak musika estudio

moduko bat zuen eraikita etxeko gela batean. Estudioan zituen gitarra elektrikoekin jarduteko aukera eskaini zidan, eta guztiz txundituta geratu nintzen. Handik atera nintzenez argi nuen gitarra elektronikoa jotzen hasi nahi nuela.

Laster iritsi al zen gitarra hori?

Ez. Gitarra elektriko ez behintzat. Garai hartan gitarra elektriko ez zegoen oso ondo ikusita haren inguruan zeuden estereotipoengatik, eta gurasoek ez zidaten gitarra erosteko baimenik ematen. Azkenean, 16 urte inguru nituela, gitarra klasiko bat erosteko baimena lortu nuen. Urte oso bat igaro nuen hura jo eta jo, ia gelditu gabe. Klase partikularretara joaten nintzen hasieran, eta ondoren, bakarrik jarraitu nuen ikasten. Azkar ikusi zuten gurasoek gitarra jotzeko izugarritzko grina nuela, eta urtebetera, gitarra elektriko erosten utzi zidaten.

Eta noiz iritsi zen death metala zure bizitzara?

13 urte inguru nituen. Garai hartan, inguruko beste herrietako gazteekin nahasten ginen ikastolan. Zestoar batzuek erakutsi zidaten zer den death metala, eta bete-betean maiteminduz nintzen musika estilo horrekin. Laster iritsi zen lehenengo taldea sortzeko nahia. Joseba Azkue





Garmendia Legen Beltzako taldekideekin. UTZITAKOA



Musikaria Karrantzako bere estudioan. NAGORE AIZBITARTE

azkoitiarra laguna nuen, eta Despedaceitor izena zuen taldea sortu genuen biok. Ideia hori bururatu zitzaigunean, biotako inork ez genuen instrumenturik. Hala ere, taldearen logoa eta diskoaren azala prest genituen. Denbora igaro ahala, eta jada instrumentuak geureganatuta, lagun gehiago bildu ginen taldean, eta elkarrekin hasi ginen Urrestillan zegoen lokal batean entseatzen eta lehenengo kantak sortzen.

Nola iritsi zinen Legen Beltza taldera?

Hasierako talde hura, azkenean, ez zen ezertara iritsi. Dena den, jende berri asko ezagutzen hasteko aukera eman zidan talde hark, eta nire antzeko interesak zituzten beste gazte askorekin harremana izaten hasi nintzen. Zubi-zarren entseatzen genuen, eta batzuetan Legen Beltza taldea osatzen ari zirenekin egiten genuen topo. Egun batean, beren kantua baterako gitarra solo bat grabatzea nahi al nuen galdetu zidan Xanti Rodriguezek. Legen Beltza sortzen ari ziren une hartan, eta Donostiako estudio batean grabatu behar zuten abestia. 1998ko abuztuan izan zen hori, eta irailean taldeko kide izan nahi al nuen galdetu zidaten. Azaroan grabatu genuen lehenengo maketa.

Gogoan al duzu Legen Beltzaren lehen kontzertua?

Maketa hura esku artean genuela hasi ginen dena mugitzen. Hala ere, hasierako beldurrak genituen, eta lehenengo kontzertu 'handia' eskaini baino lehen, hamabost lagunuen aurrean 'berotze' kontzertu bat eman genuen. Kontzertu hartan lotsak eta beldurrak pixka bat albo batera uztea lortu genuen, eta hurrengo astean, Azpeitiko plazan jo genuen.

Istoria Triste bat (2001), zuen lehen diskoa, etorri zen ondoren. Nola lortu zenuten diskoa grabatzea?

Lehenengo kontzertu haren ondoren, gehiago etorri ziren, eta talde bezala indarra hartzen hasi ginen. Gogoan dut hasierako maketa Baionako irradi bateko maketa lehiaketara bidali genuela eta bigarrenengo postuan geratu ginenela. Lehiaketa haren bitartez lortu genuen Senperenen [Lapurdi] lehenengo kontzertu handi samar bat ematea. Hala, pixkanaka, kontzertu gehiago eskaintzen hasi ginen. 2000. urtearen amaieran, lehen diskoa ateratzeko material dena eskuen artean genuen. Izeta Rock diskoetxearekin kontratu bat lortu eta diskoa grabatu genuen. Izugarria izan zen hori guretzako, ate pilo bat zabaldu zitzaizkigun.

Bigarren diskoak, *Insanity* (2003), prozesu ezberdina izan zuen, ezta?

Bai. Bigarren diskoa martxan jarri nahi genuen, baina Izeta Rock diskoetxea itxi egin zen. Euskal Herrian beste diskoetxe batzuen bila hasi ginen, baina ez zegoen interesik. Bestalde, ikusten genuen gure musika generoak ez zuela lekurik Euskal Herrian. Horrela jarraitu beharrean, kantak ingelesez egiten hasteko erabakia hartu genuen. Bigarren diskoak maketa lokalean grabatu genuen, eta diskoetxe ezberdinetara bidaltzen hasi ginen. Azkenean, Arizonako [AEB]



Sijin taldearekin emandako kontzertu baten. PAUL VERHAGEN

**"AZKAR IKUSI ZUTEN GURASOEK
IZUGARRIZKO GRINA NUELA
GITARRA JOTZEKO"**

**"ORAIN ARTE EGINDAKO LAN
GUZTIAREN FRUITUAK JASOTZEN ARI
GARA, ETA EDERRA DA HORI"**

**"OSO GUSTURA ARITZEN NAIZEN
BESTE ALOR BAT DA MUSIKA
ESTUDIOARENA"**

Crash Music diskoetxeak fitxatu gintuen.

Guretzako izugarritzko aukera izan zen hura.

Ameriketako Estatu Batuetako diskoetxe batek zuenganako interesa adierazteak gauzak aldatu al zituen?

Bai. Talde gisa ikusgarritasun handiagoa lortu genuen, eta bestalde, gauzak hobeto egiteko nahia ere piztu zitzaigun. Hala, Jeff Watters Annihilator talde kanadiarraren gitarrista zenarekin kontaktatu genuen; guretzako jainko bat zen hura. Ekoizle lanak ere gauzatzen zituen hark, eta Xantik kontaktatu zuen harekin, *Crash Music* diskoetxeak fitxatu gintuela eta elkarrekin lan egiteko nahia genuela esanez. Une hartan esku artean genuen materiala bidali genion, eta antza denez, gustatu egin zitzaion. Horrek guztiak ate pilo bat zabaldu zizkigun, eta ezagunagoak egiten hasi ginen. Hala ere, edukitzen hasi ginen arrakasta ez zen Euskal Herriraino iritsi.

Zergatik ez?

Gure diskoaren banaketa ez zen ondo kudeatu Euskal Herrian. Donostiako edo Bilboko dendetara joaten ginen, eta ezin izaten genuen diskoa aurkitu. Galdetu genuen ea zer gertatzen zen, baina ez genuen erantzun argirik jasotzen. Guretzako tristeza zen egora hura; izan ere, gure familiek eta lagunek diskoa noiz entzun ahalko zuten galdetzen ziguten, eta ezin izaten genien erantzunik eman. Egoera hura ikusita, diskoetxearekin genuen kontratua amaitzea erabaki genuen.

Azkenean, baina, lan hura iritsi zen Euskal Herrira, ezta?

Bai. Argi genuen egindako lan hura ez genuela albo batean utzi nahi, eta beste aukera batzuen bila hasi ginen. Hala, *Total Insanity* (2005) izeneko berredizioa atera genuen. Gure lehenengo diskoko kanta batzuk eta *Insanityko* kantak biltzen zituen; gainera, zuzenean grabatutako DVD bat zuen. Disko hark oihartzun handiagoa izan zuen, eta Espainian zehar kontzertuak ematen ibili ginen. Musika jaialdi ezberdinetan jo genuen; Festimad, LorcaRock... Eta zenbait talde famaturen kontzertuak ireki genituen, Iron Maiden edo Slayerrenak, adibidez. **Arrakasta horrek taldearen norabidea aldatu al zuen?** Bai. Azken batean, taldeko denok ez ginen musikan bakarrik aritzen. Bakoitzak bere lana eta konpromisoak zituen, eta oso zaila zen soilik musikan aritzeko erabakia hartzea. Lortu genuen arrakastarekin kontzertu gehiago emateko

eskatzen ziguten, baina zaila zen erritmo hura jarraitzea. *Dimesion of Pain* (2006) diskoa atera genuen, eta horrek ere arrakasta nahiko handia izan zuen European. Bazirudien azkenengo jauzia egiteko unea iristear zegoela, baina ez zen horrela izan azkenean.

Zer gertatu zen?

Gure bateriak, Edorta Azkunek, taldea utzi zuen, eta Ivan Hernandez sartu zen haren ordez. Ivanek izugarritzko haize freskoa ekarri zuen taldera, eta kontzertuak ematen jarraitu genuen. Hala ere, denok ez gindoazen norabide berean. Ivan eta ni gehiago egiteko nahiarekin geunden, baina besteak ez. Egoera haren aurrean, ez genuen ikusten Legen Beltzak askoz gehiago iraungo zuenik, ez behintzat nahi genuen erritmoan. Dena den, azken diskoa, *Need to Suffer* (2010), grabatu genuen, eta kontzertu batzuk eman genituen ondoren. Azkenengo etapa hartan, ordea, argi ikusi zen taldeak ezin zuela modu hartan jarraitu. Ez ginen talde bezala banandu, baina zuzeneko kontzertuak egiten uztea erabaki genuen 2011. urtean.

Legen Beltzaren ibilbidea eten zenean, dena den, musikarekin jarraitzeko intentzioa zenuen zuk, ezta?

Bai, hasiera batean kanpora joateko intentzioa genuen Ivanek eta biok. Europako beste herrialde batera joan nahi genuen bizitzera, eta han musika talde bat martxan jarri ahal izango genuela espero genuen. Baina patuak beste plan bat zuen guretzat, eta azkenean, ni Euskal Herrian geratu nintzen. Karrantzan bizitzeko leku aproposa topatu nuen, eta aurrera eraman nahi nuen proiektu bat errealitate bihurtzeko aukera nuen: nire musika estudioa sortzea. Denbora tarte horretan Ivanekin beste zenbait musika taldetan ere ibili nintzen: Jon & Sugramas, Clocwork, Extintion...

Tarte horretan, 2016. urtean zehazki, Legen Beltza berriro elkartu zen kontzertu bat emateko. Zer-nolako esperientzia izan zen hura?

Oso esperientzia polita izan zen. Aukera izan genuen berriro elkartzeko eta entseatzeko, zuzenean jotzeko eta iraganeko anekdotak eta oroitzapenak errepasatzeko. Horren ondoren, kontzertu gehiago eskaini genituen, eta guztietan esperientzia izugarria bizi izan genuen. Taldea berriz elkartzeko eta martxan jartzeko intentzioa ere agertu zen, baina ni ez nengoen pauso hori emateko prest. Beste proiektu batzuk nituen esku artean, eta oso zaila

izango zen berriro talde bezala funtzionatzen hastea niretzat.

Proiektu horietako bat Sijin musika taldea da. Zer dela-eta sortu zen talde hori?

2018an hasi ginen talde berri bat sortzeko intentzioarekin. Ivan Berlines Necros Christos taldearekin zebilen bitartean, bisita ugari egiten nizkion. Hala, bere taldekideak eta han zituen bestelako harremanak ezagutzen hasi nintzen. Gaur egungo taldea osatzen dugunok Parti San izeneko musika jaialdi batera joaten hasi ginen, eta hirugarren urtean pentsatu genuen ederra izango litzatekeela hirurok talde bat sortzea; death metal talde bat, 80ko hamarkada amaierako eraginekin. Segituan hasi ginen kantak idazten eta lehenengo lana ekoizten.

Jada bi lan atera dituzue: *Angel of the Eastern Gate* (2019) demoa eta *Sumerian Promises* (2021) diskoa. Nolako izan da bi lan horien prozesua?

Lehenengo lana sortzerakoan bananduta geuden: ni Karrantzan eta beste biak Berlines. Haiek egiten zituzten grabazioak bidaltzen zizkidaten, eta nik hemen, nire estudioetik, gitarrak grabatzen nituen. Dena prest zegoenean Karrantzara etorri ziren, eta hemen grabatu genuen lana. 2019. urte amaierarako atera genuen demoa, eta 2020ko martxo hasieran eman genuen gure lehenengo kontzertua. Ondoren, denok dakigu zer etorri zen, eta pandemia dela eta, ezin izan genituen kontzertu gehiago eman, baina bigarren lanarekin hasteko aprobetxatu genuen munduaren 'geldialdi' hura. Bakoitza munduko txoko batean zegoela ibili ginen lanean berriro ere. Azkenengo diskoa 2021ko abuztuan grabatu genuen nire estudioan, eta azaroan atera zen.

Harrera ona izan al dute lan horiek?

Izugarritzko harrera izan dute European. Oso gustura gaude. Kritika onak jaso genituen hasieratik, eta egoera hobetu zenean, kontzertuak ematen hasi ginen. Pasa den uztailen 24 eguneko bira bat egin genuen European zehar. Los Angeleseko [AEB] Sadistic Intent taldearekin jardun dugu emanaldiak eskaintzen. Iraganeko taldeekin ezin izan nuen horrelako bira bat bizi izan, eta aukera hori orain iritsi izanak izugarritzko poza ematen dit. Oso esperientzia ona izan da, eta oso gustura gaude izan dugun oihartzunarekin.

Iritsi al da hona oihartzun hori?

Zoritzarrez, ez. Bira ez zen Euskal Herritik pasatu. Europa erdialdean eta ekialdean ibili



Garmendia Karrantzako etxeko terrazan. NAGORE AIZBITARTE

ginen, Londresen eta Irlandan ere bai. Euskal Herrian ez dugu jo oraindik, eta badaukagu gure lana gertukoekin partekatze gogo. Lagunek eta familiako kideek badakite taldeak ilusioz betetzen gaituela, eta badugu haiek gu zuzenean ikusteko gogo. Azaroaren 18an joko dugu lehenengo kontzertua Elgoibarren (Gipuzkoa), data hori iristeko irrikitan gaude.

Etorkizun oparoa ikusten al diozue Sijjin taldeari?

Baietz esango nuke. Hurrengo urteko apirilean bi kontzertu emango ditugu Txilen eta Perun, eta asmoa bira bat egitea ere bada. Taldeko giroak eta dinamikak horrelako planak egitera bultzatzen gaituzte. Kimika itzela daukagu elkarren artean, eta oso ondo ulertzen gara. Esan dezakegu ibilbide berean daukagula jarrita fokua, eta bideak ekarriko duenaren zain gaude. Ezin dugu jakin zer gertatuko den, baina orain arte egindako lan guztiaren fruituak jasotzen ari gara, eta ederra da sentipen hori. Beraz, nik ez diot amaierarik ikusten taldeari, oraingoz behintzat.

Zure musika estudioarekin ere buru-belarri zabilta. Zer da han eskaintzen duzuna?

Oso gustura aritzen naizen beste alor bat da musika estudioarena. Musika taldeak joan daitezke

hara, eta nik gauza ezberdinak eskaini diezazkieket. Nahasketa, grabaketa eta masterizazio prozesuan laguntzen dut, eta orokorrean, ekoizle lana gautzen dut. Taldeak musika estudioara etortzen direnean, hemen igarotzen dituzte egunak, musikaren munduan bete-betean sartuta. Horixe da niretzat aukerarik onena. Izan ere, zaila da egunero Karrantzara joan-etorrian ibiltzea, eta bertan egun batzuk gelditzea aukera eskaintzeak esperientzia hobetzen laguntzen duela iruditzen zait.

Gauza asko dituzu esku artean. Erraza al da oreka mantentzea?

Gaur egun unerik onenean nagoela uste dut; oreka hau perfektua da niretzat. Nire lana, Sijjin taldea eta musika estudioa aldi berean kudeatzea ez da erraza, baina uste dut lortu dudala. Azkenengo hilabeteetan ate asko ireki zaizkit Sijjin taldeak izan duen oihartzunagatik. Hori dela eta, egunetik egunera proposamen berri gehiago iristen zaizkit. Oreka mantendu ahal izateko, zenbait proposameneri ezetz esaten hasia naiz jada, erraza ez den arren. Denbora gehiago hartu nahi dut niretzako, nire musika estudioaz eta urte hauetan guztietan eraikitzea lortu dudana denaz gehiago gozatzeko. ■■■

"Pixkanaka pauso handiak ematen ari da emakumeen futbola"

MIRARI URIA FUTBOLARIA

19 urterekin, Realaren talde nagusian bigarren denboraldiari ekin dio Mirari Uriak. Duela lau urte iritsi zen Lagun Onaketik Realera, eta pausoz pauso, amets asko ari zaizkio betetzen "txikitan beti futboleant" ibiltzen zen aurrelari azpeitiarrari. Europako eta munduko txapel bana irabazi ditu Espainiako selekzioarekin.

Testua: **Mailo Oiarzabal**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea**.

Zubietako Z7 zelaian, Realaren entrenamendu gune handiaren goreneko zelaian, eguzkipean entrenatu ondoren hartu du Uztarría Mirari Uriak (Azpeitia, 2003), egun horretan zegozkion masajea eta tratamendua jaso aurretik. Realak 0-1 galdu zuen Municheko Bayernen aurka bi egun lehenago, taldearen Txapeldunen Ligako lehen agerraldian. Uriak ez zuen minuturik izan partida hartan. Udan Espainiako selekzioarekin Europako eta munduko txapeldun izan ondoren, Realean gero eta minutu gehiago jokatzeko du, hain zuzen ere, aurtengo helburu nagusia.

Europako eta munduko txapeldun, uda berean. Ez da marka txarra.

Uda hasieran ez nuen berehalakoan pentsatzen bi titulu horiek lortuko nituela. Europako Txapelketan bai geundela irabazteko hautagaien artean, faboritoetakoak ginen, baina Munduko Txapelketan ez. Maila horretako bi txapelketa irabazte oso zaila da, pribilegiatuak gara horrelako bi lorpenetan parte hartzeagatik.

Europakoa irabazi ondoren, espero al zenuen Munduko Txapelketarako hautatuen artean egotea?

Iazko irailean jaso nuen Espainiako selekzioaren lehen deialdia, eta bi taldeetakook elkarrekin egon

ginen. Ondoren, denboraldi osoan 19 urtez azpikoekin ibili nintzen, Europako Txapelketaren azken fasera sailkatzeko partidak jokatzen. Aldiz, 20 urtez azpiko selekzioak aurretik lortua zuen Munduko Txapelketa jokatze txartela, eta deialdi gutxiago egin zituzten maila horretarako. Urtean zehar deialdi denetan edo ia denetan egon nintzen, alde batetik banuen 20 urtez azpikoen txapelketara ere deituko ninduten esperantza; baina, bestetik, maila horretan ni baino zaharragoak eta oso onak diren jokalariek asko daudela pentsatzen nuen.

Txapelketa bat bukatu eta bestea hasi bitarteko denbora tarteare ere laburra izan zen, ezta?

Hamar eguneko tarteare genuen, eta bai, oso zaila da txapelketa batetik itzuli berritan beste bati ekitea, psikologikoki pixka bat nekatuta zaudelako, baina uste dut nahiko ondo moldatu garela azkenean.

19 urte azpikoen selekzioan jokalaria nabarmenenetakoa izan zinen eta gol garrantzitsuak egin zenituen. 20 urtez azpikoen taldean, aldiz, rol apalagoa betetzea tokatu zitzaizun. Nolakoak izan ziren bi txapelketak zuretzat?

Bi txapelketak oso desberdinak izan dira niretzat. 19 urtez azpikoenean ia partida guztietan hasierako hamaikakoan jokatu nuen; izan ere,





19 urtez azpiko Europako txapelak, finala amaitu berri. Zutikako lehen lerroan ezkerretik hasita bigarrena da Uria. RFEF

esan dezakegu hori dela nire berezko maila, neu nintzen taldean zaharrenetakoa. Hala ere, pribilegiatua izan naiz, Pedrok [Lopez, Espainiako 19 eta 20 urtez azpikoen hautatzaile izan dena] jokatzeko aukera eta minutu asko eman dizkidalako eta nigan konfiantza osoa izan duelako. 20 urtez azpikoen selekzioarena beste kontu bat da. Urtebete zaharragoak diren jokarariak sartzen dira hor, maila askoz handiagoa da, eta hamaikakoan tokia izatea askoz zailagoa. Hala ere, minutu asko jokatu nituen Munduko Txapelketan, eta oso gustura aritu nintzen. Egia da ez dela gauza bera titularra izatea edo gutxiago jokatzeko, baina asko gozatu dut bi txapelketetan, oso esperientzia politak izan dira biak.

Realaren harrera Anoetan, Azpeitiko Udalaren aitortza... Baina omenaldi bereziena etxean egin zizuten. Ez al da hala?

Bai, egundokoa izan zen. Gainera, ez neukan arrastorik, ez nekien ezer. Madrildik etxera nentorren, eta lehengusu bati idatzi nion, afaltzera baserrira joatekoa nintzela eta berak joan behar al zuen galdetzeko. Baietz erantzun zidan, baina besterik gabe. Nik afalorduaren aurretik joan nahi nuen baserrira, attitxerekin eta amamarekin egotera; eta gurasoek

ezetz, joango nintzela gero, 20:00etarako joango ginela. Eta horrela egin genuen. 20:00etarako azaldu nintzen, eta han zeuden lehengusu denak, koadrillakoak, familia osoa ia. Ez dakit zenbat pertsona egongo ziren guztira, 90 bat edo. Oraindik ezin dut sinetsi nolako harrera egin zidaten. Benetan eskertzekoa da etxera itzultzea eta hainbeste jenderen gertutasunaz gozatzea. Ez gara gure lorpenaz hain kontziente, eta jendearen gertutasun horrek erakusten dizu zerbait polita egin duzula, halako harrera eragiteko. Niretzat amets bat zena bete dudalako ingurukoak ere zenbat poztu diren ikusteak asko hunkitu nau.

2018-2019 denboraldian iritsi zinen Lagun Onaketik Realera beste bi azpeitiarrekin batera; Haizea Uranga eta Elene Viles. Nola oroitzen dituzu Zubietako hasierako egun haiek?

Realak bigarren taldea atera nahi zuen, urtean zehar Zubietan zenbait entrenamendu antolatu zituzten eta horietan izan nintzen. Beti izaten duzu hartuko zaituzten esperantza txiki hori, baina hala ere, Realak hartuko ninduela esan zidatenean, egundoko ilusioa egin zidan. Familia osorentzat izan zen poz handia. Egunerokoan aldaketa handia izan zen niretzat: taxian etortzen ginen Azpeititik, berriak ginen eta hemen



Mirari Uría, elkarrizketaren une batean.

**"ASKO GOZATU DUT BI
TXAPELKETETAN, OSO ESPERIENTZIA
POLITAK IZAN DIRA BIAK"**

**"ASKO HOBETU BEHAR DA LEHEN
MAILAK ESKATZEN DUEN NEURRIA
EMATEKO"**

**"EMAKUMEEN FUTBOLAREN ORAIN
ARTEKO UNERIK ONENAK BIZITZEA
EGOKITZEN ARI ZAIT"**

jende berri asko ezagutu genuen. Haizearekin txiki-txikitatik izan dut harremana; Elenerekin zer bait gutxiago, orduan maila bat goragokoekin aritzen baitzen. Beraz, bai, babesa izan zen niretzat hona etorri eta bi azpeitiar eta Jone Larrañaga azkoitiarra ondoan izatea. Horrez gain, hemen jendea oso irekia da, oso ondo hartzen zaituzte. Oroitzapen onak ditut, egun politak izan ziren hasierako haiek ere.

Kadeteak zineten artean, baina Realean senior mailako talde batera egin zenuten jauzi.

Guretzat ez zen horrenbesteko jauzia izan. Taldekide gehienak kadeteetan onenak zirelako zeuden han, eta gainontzekoak, berriz, maila handiagoko ligetan ibilitako seniorrak ziren. Lehen urtean, adibidez, oso aise ibili ginen, ez genuen jauzia antzeman. Bat edo bi kenduta, denak oso jokalaria gazteak ginen, eta ondo etorri zitzaigun beteranoagoak ziren haien eskarmentua. Momentu txarretan hitza hartzeko, kapitaintza hartzeko... beharrezkoa da esperientzia gehiago duen norbait izatea, taldea orekatzeko.

2019an talde nagusiarekin partidaren bat jokatu zenuen jada.

Bua, ez dakit noiz jokatu nuen ere, kristoren arazoa daukat! [barrez]. Akordatzen naiz Realera etorri ginen urte hartako denboraldiaurrean Las Gaunasan, Logroñon [Errioxa, Espainia], minutu batzuk jokatu nituela. 2018-2019an uste dut ez nuela gehiago jokatu lehen taldearekin, eta 2019-2020 denboraldian bai, Anoetan. Hura izan zen nire debuta.

Eta nolakoa izan zen, nola oroitzen duzu?

Oso oroitzapen onak dauzkat. Entrenatzaileak berotzera atera ninduen, baina uste nuen agian berriro aulkira itzuliaraziko ninduela. Bat-batean, "Mirari!" entzun nuen, eta horixe pentsatu nuen, berriro aulkira joateko deitzen ari zitzaizkidala. Aulkira joan, esertzen hasi nintzen, eta "ez, ez, zelaira irten behar zarela!". Aiba! Athleticen kontrako derbia zen, jende pila bat zegoen Anoetan, nire familia osoa joan zen partidara... Benetan zirrargarria izan zen zelaira irtetea niretzat. Oso gaztea nintzen, ez dakit 16 edo 17 urte nituen, eta hainbeste jenderen aurrean jokatzeari, niretzat erreferente eta ni baino askoz zaharragoak ziren jokalariekin... Hasiberri berri bat, egundoko eskarmentua zutenen kontra. Taldearentzat ez, galdutuz egin baikenuen, baina pertsonalki oso egun handia izan zen, oso polita.

Lau urtetan aldaketa asko eta nabarmenak bizi izan dituzu futbolari ibilbidean. Bertigo apurren bat ez al duzu sentitu unereren batean?



Pixka bat bai, batik bat joan den urtean. Lehen Mailako dinamikan sartu nintzen eta egundoko aldea zegoen bigarren taldearen eta talde nagusiaren artean. Bigarren taldea Nazional mailan aritzen da, eta maila horretan eta Lehen Mailan dauden taldeen mailak oso desberdinak dira. Batik bat erritmoari eta fisikoa-ri dagokionez, asko hobetu behar da Lehen Mailak eskatzen duen neurria emateko.

Atzera begira jarrita, noiz hasi zinen futbolean jokatzeko?

Txikitik beti futbolean ibiltzen nintzen. Anaiarekin, lehengusuekin... beti futbolean. Amak ere esaten dit, eskolan hasi nintzenean, joan zela irakaslearekin hitz egitera, galdetu ziola ea zertan aritzen nintzen edo nola moldatzen nintzen han, eta irakaslearen erantzuna "mutilekin futbolean jolasten ibiltzen da" izan zela. Txiki-txikitatik, betitik, ibili izan naiz futbolean. Aurrerago, lehendabizi saskibaloian hasi

nintzen, Iraurgin, baina laster aldatu nintzen futbolera. LH5en nenbilela izan zela uste dut. Lagun Onaken teknifikazio eskolara joaten hasi nintzen; oker ez banago, igandeetan entrenatzen genuen, astean behin, eta tartean behin partidaren bat jokatzeko genuen. Gero, ez dakit infantiletan ala kadeeteetan izan zen, astean pare bat aldiz entrenatzen genuen. Horrela hasi nintzen, eta orain arte.

Nola oroitzen dituzu Lagun Onaken egon zinen urteak?

Oso ondo pasatzen nuen. Kristoren gogoarekin joaten nintzen entrenatzera. Taldekideon artean egundoko giro ona genuen, eta gainera, oso talde ona osatzen genuen, maila oso ona zegoen. Kadeeteetan maila baxuenean hasi ginen lehian, eta ohorezko mailara igotzea lortu genuen. Denboraldi oso onak egin genituen. Oroitzapen oso politak gordetzen ditut Lagun Onaken ibili nintzen garai hartatik.

E E A L

Realaren talde nagusiko jokalaria zara orain. Nolako da zure ohiko egun bat?

Goizeko bederatziak ingururako Zubietan egon behar izaten dugu. Partida bat prestatzen ari bagara, bideo saio bat izan ohi dugu hasteko; bestela, gimnasioan ariketak egiten ditugu entrenamenduaren aurretik. 11:30 aldera hasi eta 13:30 aldera bukatzen ditugu entrenamendu saioak zelaian. Astean behin atseden hartzen dugu. Partida egunetan, berriz, goizean jokatu behar badugu, jaiki, gosalduta eta zuzenean joaten gara zelaira; arratsaldean jokatu behar badugu, goiz horretan saiatzen gara pasieraren bat egiten, pixka bat aktibatze eta neurketara lo ez ailegatzeko. Etxetik kanpo jokatzen dugunean, errutina eta ordutegi jakinak ezartzen dizkigute otorduatarako, pasiera egiteko edo geuretzat tarte bat hartzeko. Astegunetan, arratsaldean unibertsitateko joaten naiz; Fisioterapia

ikasten ari naiz, Donostian, Deustuko Unibertsitatean, oso gustura. Eta unibertsitateko eskolak bukatutakoan, etxera.

Kanpoan jokatzen duzuenean, bidaiak autobusez ala hegazkinez egiten dituzue?

Gehienbat autobusez, baina egia da joan den denboraldian hegazkina gehiagotan hartu genuela; hori esan beharra dago.

Donostian bizi al zara astean zehar?

Ez, Azpeitian bizi naiz, eta egunero egiten dut Donostiatik joan-etorria.

Ondo moldatzen al zara futbola eta ikasketak uztartzeko?

Bai, nahiz eta joan den urtean zailtasun gehiago aurkitu nituen. Unibertsitatean irakasgai guztiak hartu behar izan nituen, asistentzia ere kontatu egiten zidaten, baina entrenamenduak zirela-eta eskola asko galtzen nituen. Futbol denboraldiaren



amaieran lasaiago hartu nituen ikasketak, bestela bietara larri ailegatzen nintzelako.

Ez al dago erraztasunik eliteko kirolariak beren jarduera ikasketekin bateragarri egin dezaten?

Nire kasuan, Deustuk bere araudia dauka, hor jasota dago klaseak presentzialak izango direla, eta alde horretatik, ez dago zereginik. Egia da, hala ere, ahal duten neurrian malguak izaten eta laguntzen ahalegintzen direla; arratsaldean joan ezin naizenetan, taldearen atsedean egunetan eskola batzuetara goizez joateko aukera ematen didate, edo tutoretza orduak nahi dudanean unean eskatzeko erraztasunak ematen dizkirate. Irakasleek babes handia eman zidaten joan den ikasturtean.

Udan bi txapelketa handi jokatu, opor egun asko ez zenituen izango, ezta?

Ez, ez dut opor asko eduki, baina beno, uste dut nahikoa izan dudala eduki dudanarekin. Europako Txapelketa bukatu eta Munduko Txapelketa joan bitartean hamar egun izan

nituen atsedean hartzeko, eta Munduko Txapelketa bukatu ondoren, beste zazpi egun eman zizkidaten Realera itzuli aurretik. Uste dut atsedean egun horiez gozatzea garrantzitsua dela, batik batik psikologikoki, denetik deskonektatzeko. Denboraldia oso luzea izaten da, eta horri behar bezala eusteko beharrezkoa da zeure buruari tartea eskaintzea, deskonektatzea eta nahi duzuna egiteko denbora hartzea.

Emakumeen goi mailako futbolak aurrerapauso handiak eman ditu epe nahiko laburrean: egitura eta liga profesionalak, hedabideetan ikusgarritasun gehiago... Hala ere, gizonen futbolak duen itzalera iristetik urrun dago. Zertan hobetu daitekeela iruditzen zaizu? Zer lehentasun ikusten dituzu?

Pixkanaka parekatzen ari garela uste dut, baina, era berean, iruditzen zait inoiz ez garela iritsiko mutilen futbolak duen eragina izatera. Gu duela gutxi hasi gara, eta uste dut pixkanaka pauso handiak ematen ari dela emakumeen futbola: gure partida guztiak ematen dituzte telebistan, talde guztiak dauzkate fisioterapeutak, medikuak... edozein talderentzat oinarritzkoak diren baliabideak. Gainera, lehiaketak profesionalak direnez, aurrerantzean belarrezkoak izango dira zelai guztiak, ez artifizialeak. Pixkanaka, gauzak lortzen ari dira, eta hemendik urte batzuetara aurrerapauso gehiago izango direla uste dut. Neuri dagokidanez, zortea izan dut, emakumeen futbolaren orain arteko unerik onenak bizitzea egokitzen ari zaidalako. Entrenatzaile batzuek edo aspalditik futboleko dabilen jokalariek zaharragoek kontatzen dizkidanentzako entzundakoan, ez ditut irudikatu ere egiten. Ni futboleko hasi nintzenetik gaur arte pauso handiak eman dira.

Ikusi al duzu umerik zure elastikoarekin?

Berria naiz taldean eta ez daukat taldekide batzuen adinako oihartzunik, baina bai, bat ikusi nuen, eta egundoko ilusioa egin zidan.

Zer eskatzen diozu 2022-2023 denboraldiari?

Pixkanaka minutu gehiago jokatzea lortzea, eta ahal bada, taldeak joan den urtekoa bezain denboraldi ona egitea.

Ikusiko al ditugu hiru azpeitiar batera Realaren lehen taldean?

Oxala! Nahiago nuke, hiru edo gehiago izatea. Denboraldiaurrea talde nagusiarekin egin zuten Haizeak eta Elenek. Oso jokalaririk onak dira, eta lanean modu berean jarraitzen badute, seguru nago hiru azpeitiarrok lehen taldean jokatuko dugula egunen batean. ■■■

Koh Tao
 OSAGARRIAK +
 PIERCING ESTUDIOA
 Jose de Arriba, 14-20730 AZPEITIA T. 628 738 758

LAU
 NEUMATIKOAK
 PNEUMATIKOAK - MEKANIKA AZKARRA
 943 053056 Leioa kalea 20, 20730 Azpeitia

**JARRI HEMEN
 ZURE IRAGARKIA!**

bertako-REKIN BAI!
 Igoak/Loak | ascensores
ORDUTARIKO ZERBITZUA
100€-tik/hileko

- Bizi-zerbitzua mantentze- lan profesionalari
- Bizi-zerbitzua 24/7/365 zerbitzuan

GIPUZKOA
 943 903 450
 www.bertako.eus

NON DAGO UZTARRIA?



Lehiaketan parte hartzeko aurkitu aldizkarian Uztarria pertsonaia eta bidali erantzuna lehiaketakuztarria@gmail.com e-postara urriaren 21a baino lehen. Bazkidearen izena eta telefono zenbakia zehaztu behar dira.

Saria: Kutxillo urdaitegiaren produktu sorta.

Abuztuko Uztarria aldizkarian Uztarria pertsonaia non ezkutatuta zegoen asmatu behar zen: 17. orrialdean zegoen ezkutatuta, eta Joseba Etxaniz bazkidea izan da irabazlea.



**URDAIAZPIKO,
 HESTEBETEAk eta GAZTAK**

Etxeko berezitasuna:
EZKUR URDAIAZPIKO IBERIKOIA



Eñaut: 656 79 14 19
 Oier: 618 24 01 73
kutxillo@gmail.com
 Damazo Azkue 6
 AZPEITIA

"Aurreiritzi ugari daude 'pole dance' dantzaren inguruan"

MAIDER GURRUTXAGA 'POLE DANCE' DANTZARIA

Urtebete ere ez darama Maider Gurrutxagak *pole dance*-a egiten, baina dagoeneko primeran moldatzen da. Dantza eta akrobazia uztartzen dituen diziplina da azpeitiarrak egiten duena. Jende askok "sentsualitatearekin" lotzen duela dio. Berak, ordea, "dantza eta diziplina dotorea" dela uste du. Testua: **Maialen Etxaniz**. Marrazkia: **Olatz Alkorta**. Argazkiak: **Utzitakoak**.

Askok ez dute jakingo zer den *pole dance*-a. Beste askok historikoki izan duen iruditegiarekin eta izaerarekin lotuko dute. Baina, finean, *pole dance*-a barra bat ardatz hartuta egiten den aireko ariketa da, eta kirol zein diziplina bihurtu da jende askorentzat azken urteetan. Ariketa horrek izan du eboluzio bat historian zehar, eta horren erakusle dira azken urteetan ireki diren *pole dance*-rako estudioak eta gimnasioetan hori praktikatzeko joera areagotzea. Diziplina horrek harrapatu duen pertsonetako bat da Maider Gurrutxaga (Azpeitia, 1994).


Martxoan hasi zen aspalditik deigarria zitzaion diziplina praktikatzeko, "zerbait egiteko beharra" zuela konturatu zenean. "Nabaritzen nuen zerbaiten falta nuela bizitzan. Behar nuen motibazio iturri bat, lehen futbola zen bezala; izan ere, 18 urtera arte futbolearen aritu nintzen, eta asko ematen zidan kirol horrek. Futbola utzi nuenean, ordea, ez nuen beste kirolirik praktikatzeko. Korrika egitea ez dut atsegin, bizikletan aritzea ere ez dut gustuko... Aldiz, dantza egitea asko gustatzen zait, baita akrobaziak egitea ere. Hori dela eta, interesgarria iruditzen

zitzaidan *pole dance*-a", kontatu du. Horrenbestez, inguruko bultzadarekin, probatzera animatu zen, eta konturatzerako, "ezinbesteko" bihurtu da haren egunerokoan.

Koordinazioa, malgutasuna eta indarra

Informazioa biltzen hasi zenean, Donostiara iritsi zen: "Herrietan ez dago eskaintza askorik, baina Donostian pare bat *pole* estudio zeudela ikusi nuen. Haietako batera joan nintzen, Pole Estudio Donostiara, hain zuzen. Tarteka saio irekiak eskaintzen dituzte han, doakoak; diziplina ezagutzeko eta. Beraz, saio haietako batera joan nintzen. Irakaslea dantzan ikusita, bazirudien hegan ari zela, eta pentsatu nuen: 'Zeinen polita'. Erraz egitekoa iruditu zitzaidan, baina denborarekin konturatu nintzen ez dela kanpotik dirudien bezain simplea".

Gurrutxagak azaldu duenez, "*pole dance*-a aireko diziplina da, akrobazia eta dantza uztartzen dituena", eta, beraz, "indarra, malgutasuna eta koordinazioa" ditu ardatz. Hori dela eta, ezinbestekoa da arlo horiek ondo lantzea. "Metalezko barraren inguruan mugimendurik sinpleena egitea ere zaila da. Gorputza buruz behera jartzea asko kostatzen da,





Gurrutxaga Pole Estudio Donostian, entrenamendu saio batean.

eta hori lortzeko ezinbestekoa da indarra izatea, bai hanketan, bai eskuetan; izan ere, norberak bere pisua guztiz altxatzea eskatzen duen diziplina da. Azken finean, gorputzari heldu eta mugitu egin behar duzu. Malgutasuna ere behar da askotariko mugimenduak eta figurak egiteko", azaldu du azpeitiarrak. Estudioak bi arloak lantzeko aukera ematen dionez, astean bi egunez joaten da eskoletara: "Barran mugitzen ikastea bezain garrantzitsua da hori egin ahal izateko gaitasunak lortzea. Beraz, ezinbestekoa da malgutasuna eta tonifikazioa lantzea. Horretarako aukera eskaintzen digute eskolan, eta saio desberdinak egiten ditugu. Ondorioz, asteko egun batean barra ariketak egiten ditut, eta bestean, tonifikazioa eta gimnasioko lana".

Deskonektatzeko unea

Eskolatik kanpo ere praktikatzen du *pole dance* diziplina: "Etxean barra jarri dut. Egunerokoan ez dut denbora libre gehiegirik, baina libre nagoenean, asteburuetan, lanetik itzultitakoan, hartzen dut barran aritzeko tarteak. Lagungarri zait buruak atsedean hartzeko; ariketa ederra da eta ikasitakoa praktikatzeke aukera ematen dit...". Efortzu fisikoa eskatzen duen ariketa den arren, *pole dance*-ak zer ematen dion galdetuta, honako hau erantzun du Gurrutxagak: "Zaila egiten zait diziplina horrek zer ematen didan azaltzea; sentipen asko eta oso desberdinak ditut... Argi daukadana da asteko nire momentua dela *pole dance* praktikatzen dudana, eta haren bidez lortzen dudala nire kezka guztiak ahaztea. Libre sentitzen naiz. Ez dakit *hegan* den erabiliko nukeen hitza, baina oso eroso sentitzen naiz barraren bueltan, eta ikaragarri laguntzen dit horrek. Deskonektatzeko unea da barra eta ni elkarrekin gauden momentua,

Maidar Gurrutxaga

- **Jaiotze data:** 1994ko apirilaren 26a.
- **Ikasketak:** Lehen Hezkuntzako eta Heziketa Fisikoko Gradua.
- **Lanbidea:** Lehen Hezkuntzako irakaslea.
- ***Pole dance* dantzaria ez banintz...**
Futboleko edo kirol munduan arituko nintzateke.
- **Lanetik ateratzean gogoko dut...**
Etxekoekin gozatzea eta *pole dance*-a egitea.



Chiang Rai tenpluaren aurreko barra batean, 'pole dance' praktikatzen.

beste dena desagertu egiten da". Gurrutxagak dio "gozatzera" joaten dela eskoletara: "Gauzak ondo egitea erronka bat da niretzako, baina disfrutatzena joaten naiz eskolara, hau da, gustatzen zaidalako, eta ez gauza bat edo beste lortu behar dudalako. Irakasleak zoragarriak dira, batzuetan zorrotzak ere bai, baina hori ezinbestekoa da gauzak ondo egiteko eta gaitasunak hobetzeko. Barre asko egiten dugu elkarrekin, eta sortu dugun giroa zoragarria da".

Azpeitiarrak kontatu duenez, "jende gutxi" daki zer den *pole dance* diziplina: "Aurreiritzi asko daude *pole dance* dantzaren inguruan, eta gehienek *striptease*-arekin nahiz sentsualitatearekin lotzen dute. Jende asko

galdetu dit: 'Hori zer da, *stripterrek* egiten duten gauza hori?'. Eta, ea, haiek ere egiten dute beren erara, eta badu kutsu sentsual bat, baina diziplina gisa hori baino askoz gehiago da. Gainera, niretzako dantza dotorea da. Denbora gutxian asko irakatsi didate irakasleek, eta, beraz, gorputzak uzten didan artean praktikatzen eta gozaten jarraituko dut".

Mezu argia dauka *pole dance*-arekiko interesa dutenentzat: "Nahi duenak lor dezake. Gauza asko behar dira: indarra, malgutasuna, pazientzia... Mina ematen du; ubeldura mordoxka atera izan zaizkit, baina ez izan zalantzarik, eta animatu. Haur, gazte, heldu, argal, lodi... denek dute lekua diziplina honetan". ■



URRATEGI
INTERIORISMO
barru diseinua

Arretxe 9
20730
Azpeitia
943-85 72 44

Arrogueta 27
20600
Elbar
943-85 72 44



www.urrategiinteriorismo.com

dica www.dica.es



GAZTAINA ERREAK,
ZER DELA ETAP

BIZIDUNEN ARTERA
GOAZ BISITAN ETA EZ
NIKE ESKU HUTSIX
JOAN NAHI

Engainagarriak

Bederatzi zati hauek bost engainagarriak dira, hau da, ez dira zehatz-zehatzak edo ez datoz bat irudi nagusiarekin.



GAU BELTZA

Apirik eta martik.



Labirintoa

Gure Maripurtzil eta Pelloziri santa eskean doaz, baina aukeran, nahiago dute gutizia gozoa jaso, gaztaina baika. Zein ote da goxokietaraino eramango dituen bidea? Aurki ezazu.



ISPILUTXO, ISPILUTXO...

ET, ET, ET, HORI GABONETAKO ABESTIA DA, ETA HAU GAU BELTZA DA!

KAKA!
EZ DUT
PUTZIK
IKUSTEN

GAZTAINAK ERRE ARTEAN,
GAZTAINAK ERRE ARTEAN,
TXIPLI-TXAPLA PUN...

ETA
GOXOKIRIK
EZ AL DA
BATERE?



Gau Beltzak duen magiaren eragina izango da ogian, baina gure laguntza ez dira ongi ispliatzen. Aurki itzazu aldeak. Bederatzi dira guztira.

Zer esoten ari ate da neskatoo? Jarri marrazkitxo bakoitzaren azpian dagokien hizkia alboko hizki-marrazki alfabetoari begiratu, eta berehala jakingo duzu.



Zer ote?

Hildakok gogoratzeko pizten den gauza honek zer izen du? Jarri marrazkitxo bakoitzari dagokien izena, hizki hizki, alboko lauki zurietan. Gero, lauki gorrietan gelditu diren letrak irakurri, goitik behera.

Mezu gordea



Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/

IZAN IRAKUR ZALE!



EGIN BAZKIDE ETA %30 EKO
DESKONTUA IZANGO DUZU

bazkide@ukl.eus • 943-81 38 41

UZTARRIA

LAGUNTZAILEA:



Erakunde Publikoa



Txakurra akatuta, amorrurik ez



IMANOL AMIANO

Udazkenarekin batera, euskararen ikasturteari hasiera eman zaio herriko ikastetxeetan zein Euskaltegian, Euskaraldia ere ate joka dugu, eta, batik bat, datozen lau urteotarako gure hizkuntza sustatzeko plana mahai gainean daukagu. Eta indarberriturik, bai, baina baita kezkaturik ere ekin diogu euskararen ingurumarian gabiltzanok; ez alferrik –esaiozue pertzepzioa, esaiozue traza, ustea...– usaina hartua genion (diogu) euskararen erabilerak ez zuela (duela) bilakaera onik herrian.

Eta hara non Soziologia Klusterrak burututako kale-neurketak pertzepzio, traza, uste, usain hori hankaz gora bota duen; jaitsi ez, euskararen erabilera igo egin omen da Azpeitian, eta ez gutxi, gainera: 2016ko neurketakoa baino ia bost puntu altuagoa, 2009ko lehenengo neurketak emandako kopuruen gainetik, %86,6, alajaina! Ez naiz ni inor neurketa horien metodologia eta emaitzak zalantzan jartzeko, noski, baina hedabide honek

albistea ematerakoan aukeratutako izenburua bera nahiko esanguratsua izan zen: "Orain arteko daturik onena bai, baina...".

Nik ez dut neurketarik egin, baina belarria jarrita izaten dut, batik bat Euskaltegitik pasatzen zaizkigun ikasleen jarduna entzuteko, eta, haien artean, bereziki, Etorkizun egitasmoari esker gure artean izaten ditugun haur eta gazteena. Eta zer nahi duzue esatea, ba... Ez dira Nik 0 Williams, bale, baina "hi, Mohamed, utziyek pakien!", esaten zuen Ashrafi eta "nik eztiat ezer ein, Ashraf!", erantzuten zion Mohamedi "Vete a la mierda, Youssef!", entzuten diet orain: euskara bantutik erdera batura. Ondo saihestu dituzte, antza, soziologoen *checkpoint* kamuflatuak.

**'ARNASGUNE' DEITU
BEHARREAN
'GOTORLEKU 'DEITU
BEHARKO DIOGU
AZPEITIARI**

Beharbada, beraz, *arnasgune* deitu beharrean *gotorleku* deitu beharko diogu Azpeitiari. Euskararen ikasturte hasiera honetan, unibertsitate ikasketak egingo dituztenen %53k euskaraz ikasiko dutela argitaratu zen, baina pisu bila gaztelania ederrean ibili dira sare sozialetan. Erabileraren irudikerian liluratuta gauden honetan, Hezkuntzaren lege berriaren aurreproiektuak B2 mailako tituluaren baliokidea oparitu nahi die ikasleei DBH amaitzen dutenean (eta traza, usaina hartzen diot Batxilergoa amaitzen dutenei C1ekoaren parekoa emango dietela, eta, nork daki, C2koa familia ugarikoak direnei); Euskararen Legeak EAEn 40 urte beteko dituen honetan, UGTk 45 urtetik gorakoak euskara-mailak egiaztatetik salbuetsi nahi ditu, eta Urтарanek ez dio ikusten "eragin errealik" Gasteizko udaltzainek euskaraz ez jakiteari; hots, tituluok duten balioa ezerezean uzteko, eta, horrela, herritarrok behetik berdintzeko, Nik Orenarekin, alegia, kar-kar-kar. Txakurra akatuta, amorrurik ez. ■

"Lanean eta lanetik at antzeko giro sozialetan mugitu naiz"

JOSE LUIS OTAMENDI IDAZLEA

Ohikoa duen hitz jario dotorean aritu da bere bestaldeaz hizketan. Irakasle izana, jubilatua, idazle zaildua, lagunartea atsegin duena, hori eta gehiago ere bada Otamendi. Dena den, argi dio: "Inoren B aldeaz ezagutzeko besteei galdetu behar litzaieke".

Testua: **Julene Frantzesena**. Argazkiak: **Julene Frantzesena eta utzitakoak**.

Landura poesia liburua aurkeztu berrikan, justu beste aldeaz edo B aldeaz hitz egiteko jarri dio Jose Luis Otamendiri (Azpeitia, 1959) zita Uztarriak. Irakaslea ogibidez, idazlea pasioz, jubilatuta dago duela hiru urtetatik. Bizimodu berrira egokitzea "alde batera erraza" egin zaiola aitortu du. "Aldi bakoitzak eskatu dizkidan gauzetan saiatu naiz nire erara jarduna gauzatzen. Zaletasun edo ohitura batzuk mantendu egin ditut, eta horrek lagunduko zidan ziurrenik aro berriko egokitzapena errazten". Jubilatuta, "azken aurreko koskan" kokatu izanak, "beste modu bateko azkurak" sortzen dizkiola aitortu du: "Ezinbestekoa da hori, eta koska horretan jartzea da onenean etor dakizukeena. Zortekoa naizela uste dut zentzu horretan, ume mainosoen pare ez naiz negar-jotzen hasiko".


Ikasleekin, zehatzago esanda, nerabeekin, lan egin du urte luzez. 37 urte egin ditu Iraurgi Ikastetxean, jubilatua aurretik. "36 urte eta 11 hilabete", zehatzago esateko. "Badira urte batzuk, bai... Baina gure inguruan badira urte gehiago egin dituztenak, irakaskuntzan 40 urtetik gora eman dituztenak". Bizitza erdia baino gehiago eskaini dio azpeitiarrak irakaskuntzari, baina

lanari dagokionez, erretiroa hartuta "erraz" deskonektatu duela aitortu du. "Zortez edo, lanean nahiz lanetik kanpo antzeko giro sozialetan mugitu naiz; 37 urte eman ditudan leku berean jarraitzen dut; lanean eta lanetik kanpo izan ditudan harreman sare horiek bere horretan edo oso antzera jarraitzen dute".

Dena den, galera bat sumatu du bere baitan. "Lanak ematen dizkizu alderdi onak, eta buru zein emozio aldetik ematen dizun gimnasiarako gaitasuna galtzeko bidean dago nire kasuan. Bestalde, lankideekin eta komunitatearekin harreman oso zuzenekoa izaten duzu, eta erdoil pixka bat sumatzen dut, hiru urte pasatu baitira azken eskolak eman nituenetik. Gazteekin etengabe jardute horrek asko pizten ninduen, eta horren falta sumatzen dut".

Ezpal egokien bila

Jubilatutakoan, denbora kudeatzen ikasi egin behar izan duela azaldu du Otamendik. Lagun batek esana ekarri du gogora. "Hala esaten zidan hark: 'Jubilatzeko adinera iristerako jubilatua zara, eta orain ikasiko duzu denbora ziztu batean joatea zer den'". Arrazoia eman dio hari. "Denbora hesitutako espazio bat zen lehen, eta orain ibai handi bat. Tarteka noraez antzean





Ezkerrean, Iraia Elias eta Otamendi emanaldi batean. Eskuinean, Otamendi eta ikasle talde bat Port Aventura egindako txangoan.

gelditzen zara, eta denborari zer neurri hartu ikasi behar duzu". Hala eta guztiz, nahi duen horretarako "zalantzarik gabe, denbora gehiago" duela adierazi du. "Idazteko ere denbora gehiago daukat orain".

Idazleak ezin idatzi gabe egon. "Boladak izaten ditut. Bolada luzeetan egunero zertxobait lardaskatzen dut, apunte bidez idazten dut: gauzak apuntatzen ditut, burura etorritako gaiak, irudiak... Hori nahiko etengabe egiten dut. Gauzak pilatu eta handik saiatzten naiz interesa izan dezaketean ezpalak ateratzen". Komunikatzera iristea izaten du "betiko kezka" idazleak. "Esaten ari zaren hori beste molde batez adierazteko moduko ezpalen bat ateratzea nahi izaten dut; nire pentsamenduetan diren gauza horiek beste kolore batekin ematen saiatzten naiz, eta liburu bat edo dena delakoa kalerako janzterakoan ordu asko pasatzen dira".

Egiteko horretan bidelagun dituen pertsonak ekarri ditu gogora. "Batzuetan iturriko ura bezala etortzen da dena, baina nire kasuan gutxitan izan ohi da horrela. Zortez, lagunarte oso ona daukat, eta haiek laguntzen didate zorrotzasuna bilatzen eta. Oso lagunarte kritikoa da, pertsona gutxikoa, baina oso ona eta egiten dudana egiten jarraitzeko ezinbestekoa".

Zaletasun irakunkorrik ez

Irakasle ibilbidea bukatuta, beste hainbat gauzarekin "kateatuta" jarraitu duela azaldu du Otamendik: kultura izan da, berak dioen moduan, "lur hartze horretan asko lagundu" dion gazetako bat. Azpeitiko Kulturaz kooperatibako

lehendakaria izan da hainbat urtez, eta egiteko horretan gogoz jardun du: "Herriko zenbait jardun koskorretan aritu naiz, oso gustura. Izan ere, zure inguru gertukoarekin lotzeko modua ematen dizu horrek, zure txikian zerbait ematen ari zaren sentipen hori... Ikusi dut militantziaren garai bateko emari hartatik geratzen direla oraindik txirripa batzuk".

"Ordekan" errenditzen den horietakoa dela dio, eta esan du hainbat errutina aspalditik dituela ezarrita. "Nik dakidala, zaletasunei dagokienez, ezertan ez naiz oso zale fina izan. Bidean topatu ditut garai bakoitzeko adin moduan ohiko samarrak diren zaletasunak: umetan kromoen eta zigiluen bildumak egiten nituen, gero irakurzale eta zinemasale ere izan nintzen... Baina horiek ere pasatu ziren. Gero, futbola ikusteko nahiz paseatzeko zaletasuna sortu zitzaidan... Gehien irauten ari zaidana literaturarako grina da, eta kulturarekin zerikusia duten gauzekiko zaletasuna ere bai". Politikan ere aritutakoa da, eman zituen hainbat urte herriko politikagintzan; Azpeitiko Udaleko zinegotzi izan zen lau urtez, Euskal Herritarrok hautes-elkartearekin.

Gaur egun, baina, izaten du bi astez behin ia inoiz hutsik egiten ez duen zita bat: Lagun Onakeko gizonen lehen taldearen partidak ikustera joaten da Garmendipera. Urteak daramatza etxeko norgehiagoketara joaten, "gustura" hark dioenez. "Semeari segika hasi nintzen, eta futbolzaletasuna piztu egin zitzaidan berriro ere. Gaztetan ere banintzen futbolzalea, baina gero, alde batera utzita izan nuen. Etxe askotan gertatzen den bezala, ordea, semea hasi



Otamendi –eskuinean– lagun batekin danborradan.

"GAZTEEKIN ETENGABE JARDUTE HORREK ASKO PIZTEN NINDUEN, ETA HORREN FALTA SUMATZEN DUT"

"DENBORA HESITUTAKO ESPAZIO BAT ZEN LEHEN, ETA ORAIN IBAI HANDI BAT"

"NIK DAKIDALA, ZALETASUNEI DAGOKIENEZ, EZERTAN EZ NAIZ OSO ZALE FINA IZAN"

zen futbolean, eta hari segika, futbola eta pilota, pilota eta futbola, kateatu egin nintzen". Pilota ere atsegin du, nahiz eta aparteko kirolzaletasunik ez duela aitortu duen: "A, eta uda partean arrauna ere jarraitzen dut pixka bat".

Hamarkada batzuetan ere egin du atzera elkarrizketan; gaztetan izan zuten "furia aldi" bat, musikari eta zinemari lotuta. "Lagunartea ere halakoxea genuen. Musika asko entzuten genuen 70-80ko hamarkadetan, eta zinema ere halatsu jarraitzen genuen. Orduan bi zinema areto genituen herrian, eta astegunetan ere izaten ziren saioak. Zineklubak ere, garai loriatsua ez dut esango, baina izan zuen emanaldietara jende asko joaten zen aldi bat. Gero, bizimodu aldaketarekin eta familia eratzearekin, asko aldatu zitzaizkidan ohitura haietako gehienak".

Lagunartekoa eta festazalea

Lagunartean egotea, lagunekin egotea, atsegin du Otamendik, eta festak ere gustatzen zaizkio. "Etxezuloa eta kalezalea", bi hitzak erabili ditu bere burua definitzerakoan. "Festa giroan gustura ibiltzen naiz, komunitatearen ritual den aldetik. Gustura ibiltzen naiz, eta uste dut garrantzitsua dela; nire mundualdi honetan festek izan dute pisua". Danborradan ere parte hartzen du, Izarraitz Txoko soziedadeko taldearekin. Dena den, sasoi batean danborra jotzeari utzita egon zela ere azaldu du: "Denboraldi luze bat egin nuen danborradan atera gabe, baina orain urte mordoska daramatzat danborra jotzen. Gustatzen zait, egia esan".

Badu egunerokoan isiltasuna hausten dion lagun bat ere: irratia. "Ia ez dut kendu ere egiten, asko laguntzen dit. Telebista baino gehiago erabiltzen dut irratia, baina beno, ikusten ditut telesailak, baita albistegiren bat edo beste ere...". Eta frantsesa ikasten ere ari da, Azkoitiko Hizkuntza Eskolan, iaz hasita. "Gustura joaten naiz eskoletara, baina gogorrena da, norbere mugak oso agerian uzten dituela eta nire ganbara alde zenbateraino dagoen bihurtuta ardagai lehorra erakusten duela. Adinak ez duela barkatzen".

Idazteari ez dio utzi, ezta ikasteari eta lagunarteari ere, eta bizitzako plazer txikiez gozatzen ere asmatzen du. "Eguna beteta izaten dut, ez dago sinesterik. Hiru urte pasatu dira jubilatuta nintzenetik, eta...". Aitortu du zera bat: norbere B aldeaz hitz egitea ez da hain erraza. "Gu kalerako janzten saiatzen gara, baina inoren B alde ezagutzeko besteai galdetu behar litzaieke". ■■■

Urrutiko intxaurrak



IONE GURRUTXAGA

Egutegiko orriari bira eman, txankletak armairuan gorde, etxeke azken hondar aleak garbitu, eta langile gehien-gehienontzat amaitu da aurtengo lasaitasun aldirik luzeena. Oraindik geratuko da norbait ametsetako oporrez gozatzeko atzerako kontaketa beteana, edo, egutegiaren orriak astinduz, hurrengo zubiaren peskizan ibiliko da besteren bat, baina gainerakook datorren urtera arte itxaron beharko dugu.

Baliteke honezkero norbait hasi izana pilak kargatzeko hurrengo helmugaren bila, poltsikoko txakur txikiak datorren uda bitartean handituko diren esperantzan: mendia edo hondartza? Hotza edo beroa? Autoz edo hegazkinez? Maleta handia edo bizkar-zorroa? Europa, Asia, Amerika... Hautuak hautu eta helmugak helmuga, errutinatik irteteko aukeratutako toki horretara iritsi orduko, nahi gabe ere, gehienok egingo dugu gauza bera: belarriak zut eta begiak adi, laster aztertuko dugu aldi baterako geralekua, ea Euskal Herriarekin loturarik duen ezer ba ote den inguruan.

Izan ere, kilometroak eta kilometroak egiten ditugu gauza berrien bila, etxeokari ihesi, baina, marka da gero, etxeokaren antza daukan

edozerk aise erakartzen gaitu. Eta matematikan ikasitako zuzenki proportzionalak nola, etxetik zenbat eta urrunago egon, orduan eta miresmen handiagoa eragiten digu gure herriarekin zerikusia duen orok. Gure idazleen lanak topatzen ditugu munduaren beste muturreko liburu dendetan; herritik oso hurbil sortutako autobusetan bidaiatzen dugu itsasoz bestalde; ahoa gozatzeko hain etxeokook ditugun produktuak topatzen ditugu... Eta berria zaiguna topatzen ez ezik, zaharra duguna erakusten ere iaioak gara eguzkitako kremaren eraginpean: nongoak garen galdetu orduko, geografo, historialari edo hizkuntzalari bihurtu, eta laster azaltzen dugu mugek banatutako herri batekoak gara, urte luzez iraun dugula hemen, eta gure hizkuntza hain dela zaharra, ezen bakar-bakarrik geratu baita, inguruan ahaide bizirik gabe.

Herritik urrun ibiltzeak zentzumenak zorrotzen dizkigu, eta, horri esker,

**LASTER APAINDUKO
DITUGU PAPARRAK
TXAPAZ, BAINA,
BITARTEAN, ABIATU
GAITEZEN BIDEAN**

zenbat aldiz egiten dugun topo euskaldunekin –eta are azpeitiarrekin– gutxien espero dugun tokian. Halakoetan, ez dugu hitz asko behar izaten besteak ere gure antzera dabiltzala barrundatzeko, eta, are gutxiago, hizketan hasteko.

Baina, bai gauza bitxia, atzerrian hain ongi funtzionatzen duten gaitasun horiek guztiak desgaitu egiten zaizkigu gure lur hitsetara bueltatzean. Behe-lainoak bizitasun guztia jan izan baligu bezala, Azpeititik irtenda ere, euskaldunak identifikatzeko radarrak kale egiten digu. Eta zertarako galdu denbora aurrean dugunak euskaraz ba ote dakien egiaztatzen? Lehen kolpean *buenosdías*-ka hasi, eta buruhauste bat gutxiago!

Bada garaia urrutiko intxaurren lilura albo batera utzi, eta etxeke intxaurren oskolen barruan begira hastekoa, gordea dagoen guztia ateratzekoa, eta, horretarako, gaineko itxura hautsi, eta barruan zer dagoen jakin behar dugu: susmoak, irudipenak eta radarrak alboratu, eta ekintzetara pasatu. Laster apainduko ditugu paparrak txapaz, baina, bitartean, abiatu gaitezen bidean: *egun on* baten erantzuna eraginkorragoa izango da beti azaleko itxura baino. Hitzez ekiteko garaia baita. ■

Zerbitzuak hobetzeko eta gizarte-politika hobeak izateko **ticketa. BAI.**



TicketBAI, Gipuzkoa osoa batzen duen tresna aurreratu eta solidarioa, etorkizuneko erronkei aurrea hartzeko.

gipuzkoa.eus/ticketbai



TicketBAI
GIPUZKOAN | GIPUZKOAN




ETORKIZUNA ONAN
Le Futuro

eskatu
desberdin

**BETIKO JATETXEAK
INOIZ EZ BEZELA**

DESKARGATU ETA PROBATU



%15
DESKONTU KODEA
UZTARRIA

**AZPEITIAN ZURE ATERAINO
EUSKARAZ - ESKAINTZA ONENAK**

INFORMAZIO GEHIAGO ESKATU.EUS WEGBUNEAN
"SARTU" "UZTARRIA" KODEA ORDAINDU AURRETIK %15-TERKO DESKONTU
IZATEKO URRIKO LEHENENGO ESKARIAN.






KOMUNIKAZIO MULTIMEDIA



egunkari

1



telebista

1



4
aldizkari



7
atari digital



B

BALEIKE

K

KARKARA

erto

ERLO



MAXIXATZEN

UH

UROLA KOSTAKO
HITZA

U

UZTARRIA

ZH

ZARAUZKO
HITZA



Etxea gainean hartuta

Itsaso Aramendi azpeitiarra eta Oier Iriondo debarra ezohiko bidaia egin ari dira, Peru eta Lur semeekin. Uztailaren 1ean bizikletaz abiatu ziren Baionatik, eta 3.000 kilometro inguru egin ostean, hil honen erdialdera iritsiko dira helmugara, Budapestera. "Esperientzia polita" izaten ari dela nabarmendu dute. Testua: **Ihntza Elustondo**. Argazkiak: **Utzitakoak**.

LEHEN BIKOTEAN, ORAIN UMEEKIN

Itsaso Aramendik eta Oier Iriondok bidaia dezente egin izan dituzte bizikletaz: Korsikara, Zeelanda Berrira, Asiako hego-ekialdera... Lehen bikotean egiten zizutzen irteera horiek, baina orain, bi seme dituzte: 4 urteko Peru eta 2 urteko Lur. Dena den, guraso izateak ez die oztopatu hainbeste atsegin duten moduan bidaiatzea. Aramendik eta Iriondok baimena eskatu dute lanean, eta uztailaren 1ean abiatu zuten bidaia, seme txikiak gurdian hartuta.



EGUNEAN 30-40 KILOMETRO

Baionan hasi zuten bidaia, eta Budapesten amaituko dute, urriaren erdialdean. Aramendi eta Iriondo bizikleta banaren gainean joan ohi dira, eta Iriondoren bizikletara lotuta bi semeak. Ibilbide luzea egingo duten arren, ez dute egun guztia bizikleta gainean pasatzen. "Goizean esnatu eta lasai gosaltzen dugu. Gero, ordubetexo bat egiten dugu bizikletaz, eta gelditzen garen lekuan zerbait egiteko aprobeztatzen dugu. Bazkalostean, beste 25 bat kilometro egiten ditugu; umeak erdi lo joaten dira atoian", azaldu du Aramendik. Orotara, 30-40 kilometro egiten dituzte eguneko. Eta ibilbide horretan, haurren gustuko gauzak egiteko ere hartzen dute tarte; besteak beste, ipuinak irakurtzeko.



HAURRENTZAKO GURDIA

Lehen, bizikletaz txangoren bat egiten zutenerako, bi haurrak elkarren ondoan joatea ahalbidetzen zuen gurdi bat zuen familiak. Baina modu horretan, haurrak ika-mikan hasi ohi zirela eta, beste zerbait behar zutela pentsatu zuten. Hala, haur bat bestearen atzean joatea ahalbidetzen duen atoa topatu zuten Interneten. Erosi zuten atoa, probatu ere bai, eta bidaia motzetan ondo moldatzen zirela ikusita, luzeago bat egitera ausartu ziren. Guztira, 3.000 kilometroko bidea osatuko dute, eta Aramendiren arabera, "oso ondo" ari dira moldatzen.



IBILBIDEA BIDEGORRIETATIK

Besteak beste, Frantziako, Alemaniako, Austriako eta Hungariako zenbait txoko zapalduko dituzte pedalkadaz pedalkada, eta ibilbide hori ez dute kasualitatez aukeratu. "Ingurune horretan bidegorri ugari dago, eta bidaiaren zatirik handiena bidegorriz egin dugu. Autoekin ere tartekatu ditugu zati batzuk, baina Frantzian-eta oso lasaiak dira bigarren mailako errepideak. Gainera, nahiko lauak dira bideak, eta hori ere garrantzitsua da, zama handia daramagulako", azaldu du Aramendik. Bizikletak astunak izateaz gain, haien gainean traste ugari daramatzatela esan du. "50 kilora hurbilduko da nire bizikleta, eta Oierrena, agian, 80 kilora ere bai, umeak daramatzalako kateatuta".



HAURRENTZAT PLAN "ERAKARGARRIA"

Batetik, ibilbidearen ezaugarriak izan dituzte kontuan bidaiaren nondik norakoak zehazterakoan, "arriskua saihestu" nahi zutelako. Bestetik, ordea, bidaia "haurrentzako erakargarria" izan zedin nahi zuten. "Europan kanpin asko dago, bereziki Frantzian. Umeekin ibiltzeko oso egokia da Frantzia, kanpinetan denetarik dagoelako: igerilekuak, puzgarriak...". Hori horrela, gurasoak ez ezik, haurrak ere "gustura" dabilzala nabarmendu du Aramendik. "Noski, bidaian zehar ere egunak izaten dira, etxean bezala".



BIZIKLETA BIGARREN ETXE

Eguna hara eta hona igaro ostean, egunero munduko txoko batean lo egiten du familiak; hori bai, beti kanpin dendan. "Kanpin denda, lo zakua, su txikia... denetarik daukagu". Ekaitzak ere ez du haien eguneroko martxa oztopatu: "Tokatu zaizkigu ekaitzak, baina kanpin dendan egin dugu lo beti. Umeak ohituta daude, eta ez dira beldurtzen". Dena den, irudian ikus daitekeenez, edozein une eta gune izan daiteke aproposa kuluxka egiteko. Ibilbidean zehar, gauza batek harritu du Aramendi: "Jende pila bat ikusi dugu bizikletaz bidaiatzen", kontatu du.

ELKARREKIN EGOTEAREN EDERRA

Aramendik eta Iriondok orain arte bikotean bizi izan dutena haurrei transmititzeko aprobetxatu nahi izan dute bidaia. "Gu oso gustura ibili izan gara horrela. Bidaiatzeko unean oso gertutik bizitzen duzu dena; ez daukazu presaka ibili beharrik, lasai egon gaitezke elkarrekin... Bidaiatzeko modu hori umeekin ere probatzea nahi genuen, beraiek ere horrela ibiltzea zer den ikusteko; familian erosketak egitea, jatekoa prestatzea, kanpina muntatzea... Eguneroko presa horretatik irten eta laurok elkarrekin egotea nahi genuen", esan du. Lehen esperientziaren gozotasunaz pilak kargatuta, batek daki noiz etorriko den hurrengo abentura. ■■■





MIEL A. ELUSTONDO

Hildakoa hil

Gerra akabatu zenean, Elenak bigarren alaba izan zuela esan zenidan...

—Bere herriko batekin.

Mutilak Jexux zuen izena...

—Arotza zela esan zenidan...

—Ebanista. Gerra eta gero,

Luxiano harrapatu zuten, Jexuxen lagun handienetako bat. Jexuxek bazekien berari ere bila zebilzkiola, eta ihes egin zuen, ez ondoko herrira ere, baina urrutiagoko batera.

Herri hartan, aldi batean, Elenaren etxean bizi izan zen, eta hortik jaio zen Pepita.

Garai hartan, Jexux herriko aroztegi batean hasi zen lanean, eta inor atxilotzera joan ez zitzaionez, salbu zegoela pentsatu zuen. Behin, tailerretik irten eta bere herriko batekin egin zuen topo. Arraioa, lehengusua zuen! Hura poza Jexuxena!

Dena kontatu zion, nola ihes egin ahal izan zuen, nola Elenarekin bizi zen, non ari zen lanean... Egun hartan, Jexux pozak sartu zen etxera. "Ba al dakizu...", hasi zitzaion Elenari. Lehengusuarena kontatu zion. Jexux baino aztiago Elena, etxetik alde egiteko esan zion, ihes egiteko, uzteko lanak eta gainerakoak, joateko eta ezkutatzeke lehenbailehen. "Baina, Elena, lehengusua dut, nola esango du, ba, ezer?!". Elena, egoskortuta, ihes egiteko

esanez Jexuxi... Ez zion kasurik egin. Handik bizpalau egunera, aroztegiara joan zitzaion polizia. Seguratasuneko Zuzendaritzara eraman zuten. Gero, Luxiano preso zeukaten zulora. Heriotza zigorra eman zioten Jexuxi, nola emana zioten aurretik Luxianori. Jexuxek, bero-bero eginda, faxistek ez zutela hilko hasi zen esaten. Ezetz, faxistek ez zutela akabatuko. Eta Luxianok lagunduta, halako benenoren bat inguratu zuen. Hurren zegoen gauean, pozoiz hura hartu zuen. Goizean goizago, erdi akabatuan zegoen Jexux, hilzorian, edo hilda. Hala ere, poliziak zeldara etorri, Jexux arrastaka atera eta hormaraino eraman zuten. Eta fusilatu egin zuten.

—To! Hildakoa fusilatu zuten!

—Bai, be! Esan zuen Jexuxek, ez zutela faxistek fusilatuko! Ez alferrik ibili haren gorpuzkien bila, ez dago jakiterik non sartu zuten lur azpian. Noiz edo noiz agertuko dira, baina batek jakin... ■■■

JEXUX BAINO AZTIAGO ELENA, ETXETIK ALDE EGITEKO ESAN ZION, IHES EGITEKO, UZTEKO LANAK



SARA AMENABAR

Desberdintasunean berdin

Zu eta ni desberdinak gara. Desberdinak gara eta horrek aberasten gaitu, zuk nigandik ikas dezakezulako eta nik zuegandik. Gizakiak elkarlanean mundua alda dezake.

Polita dirudi, baina ohikoa izaten da kontrakoa gertatzea. Desberdinak gara, eta zu baino hobe izaten saiatzen naiz. Ez dugu berdin pentsatzen, eta nola ez, nik daukat egia ahoan. Hitz egitea gogoko, eta ondokoari entzutea ez hainbeste. Sokatiran bezala, jolasean. Jolas horrek ez du dibertigarritasunik izaten, ordea.

Hara, ez da zure errua. Ezta nirea ere. Ez du axola nork duen arrazoia, bi ikuspuntuak entzuten badira. Ez du axola, adostasunera iristea baita helburua, eta ez irabazleari oparia ematea. Agian, opari politena elkar ezagutzea izan daiteke. Kanpotik begira desberdinak garela antzematea erraza da, barrutik ezagutzea zailagoa. Zailagoa, baina noski, aberasgarriagoa.

Ez ahaztu, azkenean, ez garela hain desberdinak; bizitza bizitzen ari garela, eta biok ikaste prozesuan gaudela. Hori da lehenengo pausoa, dena ez dakigula onartzea, entzuten jakitea. Zure iritzia garrantzitsua da, besteak esateko aukana ere bai. ■■■

TiEN21 ESNAOLA

ZATOZ
DENDA BERRITUA
EZAGUTZERA!



Pablo VI, 3 · Tel.: 943-08 03 55 · esnaelek@outlook.com



TicketBAI

FAKTURAZIO SOFTWAREA

**Irtenbide pertsonalizatuak,
prezio egokituak**



www.softekin.com

FAKTURAK EGITEN BADITUZU, BEHARREZKOA DUZU